# TTIP, CETA, EZ, HERRIEK ERABAKI!
# GURE LURRA ETA ESKUBIDEAK DEFENDA DITZAGUN

TTIP eta CETA bezalako nazioarteko merkataritza itunek finantza kapital nahiz multinazionalei ekonomia, ingurugiroa, legeak, pertsonen eskubideak eta, are gehiago, bizitza beraien mesederako zuzentzeko berme juridiko guztiak ematen dizkiete. Demokrazia, kapitalaren diktadurak ordezkatzen du eta gu guztiok, multinazional eta kezkarik gabeko espekulatzaileek agintzen duten sistema baten gatibu bihurtzen gara.

Honegatik guztiagatik, tankera honetako nazioarteko itun ororen aurka gaude, merkatuen eskubide eta askatasunak bakarrik defendatzen baitituzte, eta ez gizartearenak. Beste era bateko mundu bat posible dela aldarrikatzen dugu Euskal Herritik; elkartasuna, justizia, lankidetza eta beraien etorkizuna erabakitzeko herrien eta pertsonen burujabetza oinarri dituen nazioarteko erlazio eredu berri bat ezinbestekoa dela diogu. Gobernuak, guztion onerako, pertsonen eskubideak bermatu eta beharrak asetzeko lan egitera behartuak daude, eta ez enpresen probetxurako.

Gure herriari, nahi duen eredu ekonomiko, sozial, politiko eta instituzionala erabakitzea dagokio, herriak, demokratikoki, adierazitako borondatea delarik muga bakarra. Erakundeek, gizartearen parte hartze aktiboarekin, izan behar dute oinarrizko giza eskubideak bermatzen dituztenak. Beste eredu ekonomiko bat beharrezkoa da eta mobilizazio honen bitartez, benetakoa izatea bultzatu nahi dugu, borroka eta duintasuna bezalako oinarriekiko konpromisoaren bitartez egingo dugularik.

“Erresistentziaren udazkeneko” aldarrikapenak gureak egiten ditugu, finantza botereari aurre eginez, zerbitzu publikoak errekuperatuz, lana eta produkzioa demokratizatuz, elikadura burujabetza eta nekazal, abeltzain eta arrantza sektoreen eskubideak defendatuz, gizon-emakumeen urarekiko eskubidea, nahiz energia-burujabetza bermatzeko eta herrien bizi kalitatea defendatzeko.

Nazioarteko enpresen boterea bermatzen duten arau, hitzarmen eta itunen sarea desegitea exijitzen dugu. Giza eskubideen arkitektura berri bat eraiki nahi dugu, enpresa hauek bideratutako giza eskubideen urraketen aurrean hartu emanetarako esparruak sortzeko, baita herrien, komunitateen, mugimendu sozialen eta sindikatuen arteko elkartasun solidarioa ere.

Honegatik guztiagatik, TTIP, CETA eta TISA bezalako itunen aurka, Nazioarteko Herrien arteko Itunarekin bat egiten dugu, nazioarteko enpresen agintearen aurkako eta gizartearen eta planetaren defentsarako juridikoki loteslea den nazioarteko tresna baita.

Beste mundu bat posible da, herrien elkartasunaren bitartez. Ekintza politiko, ekonomiko eta instituzionalaren lehentasunak aldatu behar ditugu, pertsona eta hauen beharrak, merkatua eta kapitalaren interesen gainetik ezarriz. Finantza kapitala eta multinazionalen Europari aurre eginez, eraiki dezagun Europa soziala, herriena, bidezkoa eta solidarioa den Europa.

Hitzarmen hauen kontrako borrokan gaudenok gizartean aurrera eraman izan dugun sentsibilizazio lana, TTIP gelditzea eta CETA berretsia ez izatea lortu dugu. Honek borrokan eta gizarte mobilizazioan jarraitzeko animoa ematen digu ekintza politiko justu eta solidarioaren lehentasunak aldatzea lortzeko. Horregatik hurrengo azaroaren 5ean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deialdia zabaldu nahi dugu.

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen Karta

TTIP/CETA **EZ**
araba-bizkaia-gipuzkoa-nafarroa

# TTIP, CETA, EZ, HERRIEK ERABAKI!
# DEFENDAMOS NUESTRA TIERRA Y NUESTROS DERECHOS

Los tratados comerciales internacionales como el TTIP y CETA otorgan al capital financiero y a las multinacionales las garantías jurídicas necesarias para controlar en su propio beneficio la economía, el medio ambiente, las leyes, los derechos de las personas y hasta la propia vida. La democracia es sustituida por la dictadura del capital y todas las personas pasamos a ser esclavos de un sistema regido por multinacionales y especuladores sin escrúpulos.

Por estas razones nos oponemos firmemente a la proliferación de estos tratados internacionales de comercio que sólo defienden sus derechos y sus libertades y no los de la sociedad. Desde Euskal Herria proclamamos que otro mundo es posible, que otro modelo de relaciones internacionales, solidario, justo, cooperativo y basado en la soberanía de los pueblos y de las personas para decidir su futuro, es imprescindible. Los gobiernos están obligados a defender el bien común, así como a garantizar los derechos y necesidades de las personas y no a los beneficios de las empresas.

A nuestro pueblo, le corresponde el derecho a decidir su propio modelo económico, social, político e institucional sin más límites que la voluntad democráticamente expresada por la ciudadanía. Y deben ser sus instituciones, con participación social activa, las que garanticen estos derechos sociales básicos. Otro modelo de relaciones económicas es necesario y con esta movilización queremos contribuir a que se haga realidad. Y lo hacemos desde nuestro compromiso con principios básicos de lucha y dignidad.

Hacemos nuestras las propuestas de la campaña europea “Otoño en resistencia” para desafiar el poder financiero, recuperar los servicios públicos, democratizar el trabajo y la producción, defender la soberanía alimentaria y los derechos de los sectores agrario, ganadero y pesquero, garantizar tanto el derecho humano al agua como a la la soberanía energética y defender el buen vivir de todos los pueblos.

Exigimos poner fin al entramado de normas, convenios y tratados que protegen el poder de las empresas trasnacionales. Queremos construir una nueva arquitectura de los derechos sociales, que frente a las violaciones de derechos humanos cometidas por dichas empresas, cree marcos para el intercambio y la creación de alianzas solidarias entre pueblos, comunidades, movimientos sociales y sindicatos.

Por todo ello, frente a tratados como el TTIP, CETA y TISA nos adherimos al Tratado Internacional de los Pueblos para el control de las empresas trasnacionales como instrumento internacional jurídicamente vinculante en defensa de la humanidad y del planeta.

Gracias a la solidaridad de los pueblos, otro mundo es posible. Tenemos que cambiar las prioridades de la acción política, económica e institucional poniendo a las personas y sus necesidades, por encima de los intereses del mercado y del capital. Frente a la Europa del capital financiero y las multinacionales construyamos la Europa social y de los pueblos, una Europa justa y solidaria.

El trabajo de sensibilización social que hemos realizado quienes nos oponemos a estos Tratados ha conseguido que sea factible parar el TTIP o que no se ratifique el CETA. Esto nos anima a seguir en la lucha y en la movilización social para conseguir cambiar las prioridades de la acción política justa y solidaria. Por todo ello llamamos a participar en la jornada de movilización que tendrá lugar en las cuatro capitales de Hego Euskal Herria el próximo 5 de noviembre

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen Karta

TTIP/CETA **EZ**
araba-bizkaia-gipuzkoa-nafarroa